

BERRI OROKORRAK

2025eko martxoaren 7an 23. zenbakia

STEM PROFICIENT Zigilua

STEM PROFICIENT zigilua eskuratu berri dugu! Lehendik Competent zigilua bagenuen, baina mailaz igotzea lortu dugu. STEM School Labela errekonozimendu zigilu bat da, European Schoolnet sareak bultzatutako Scientix plataformaren



baitan garatzen dena. Ikastetxeen zientzia-teknologia ikas arloetako gaitasun-zigilu honek, STEM gaietan (zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematikak) Europako ikastetxeen lan pedagogikoa diagnostikatzen laguntzeaz gain, aitortza eta bikaintasuna bultzatzen ditu. Gure proiektuekin aurrera jarraitzeko indarra emango digu honek!

Udako aisialdi-eskaintza, ZIRIMOLA

Aurten ere, Zirimola aisialdi-taldeak, udako eskaintza zabala aurkezten du. [Hemen](#) aurkituko duzue, eskaintza guztiaren informazio xehetua.

HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

Haur Eskolako 2 urteko gelako eta Ikastolako HH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK
ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



1-2 urteko guraso-bilerak

Martxoaren 19an arratsaldeko **17:30ean** Haur Eskolan, **1-2** urteko haurren gusaroekin bilera egingo da.

*Ez da zaintza zerbitzurik emango.

*Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteerak:

❖ LH2:

Martxoaren 13an, osteguna, LH 2koek irteera egingo dugu **Eureka! Zientzia Museora**. Irteera egun osokoa izango da.

❖ LH5:

Datorren ostiralean, **martxoak 14**, LH5eko ikasleekin egun osoko irteera egingo dugu **Pagoeta Natur Parkera**.

Eraman beharrekoak: Mendirako arropa egokia, ura, hamaiketakoa eta bazkaria.



LH6. mailako familientzat oharra

Datorren astelehenean, martxoaren 10, LH6. mailako ikasleek Adahigiren eskutik arreta gabeziaren eta hiperaktibitatearen inguruko formakuntza saio bat izango dute.



DBH

DBH4 eta gero zer?

Urtero bezala, ikasturte honetan ere, **DBH 4ko ORIENTAZIO-BILERAK** egingo ditugu. Zuei ere, antolaketa lanetan laguntzeko asmoz, aurrez bileren inguruko egutegia helarazten dizuegu.

DBH bukatu ondoren egin daitezkeen **ikasketa** eta **lanbide-irtenbideei** buruzko bileren **egutegia** Bilera guztiak DBHko eraikinean egingo dira.



Irteera DBH3:

DBH 3-ko ikasleen Fitoarakatze proiektuaren baitan, Mutiloan kokatzen den Agrobioteknologia institutura irteera egingo dute **martxoaren 11n**. Proiektuaren gidariaren laborategiak bisitatuko ditugu eta gure ikerketako laginak emango dizkiegu azter ditzaten. Ondoren, Iruñean bazkalduko dugu eta Nafarroako Museoan dagoen Irulegiko eskua ikusteko aukera izango dugu. Ekintza guzti horiek ordutegiaren barruan izango dira.

